



3/2025. AKTA OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaiako herrian, 2025eko martxoaren 27an, arratsaldeko seietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Lehendakaria: Iñaki Ostolaza Esnal

Bertaratutakoak: Argi Yeregui Egaña
Aitor Manterola Garate
Marina Bidasoro Arozena
Asier Arakistain Alberdi
Maite Egaña Larrañaga
Itziar Etxabe Etxabe
Unai Larrañaga Uranga
Nerea Goiria Mendiola
Jose Miguel Antia Albizu
Joxe Mari Azkue Castillo
Ainhoa Illarramendi Azkue
Iker Mardaras Arrieta
Xabier Odriozola Etxaniz
Ander Olaizola Esnal
Mireia Aranbarri Ieregi
Duñike Agirrezabalaga Ugarte

Idazkaria: Alexander Marañon Muñoz

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:
Kanpaiakin batera hasiera emangoiou. Arratsalde on eta ongi etorriak Ohiko osoko bilkurara.

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK

1.- IRIZPENAK.

1.1.-UDALAREN AURREKONTUAREN 2. KREDITU ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

Kreditu gehigarrien bidezko kreditu aldaketaren 2025-KALD-000002-00 zenbakidun espedientea onartzeko proposamenaren irizpena:



Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Gaia aztertu ondoren,

ERABAKI DU

Lehenengoa.- 2025eko martxoaren 19an ospatzen den Ogasun Batzordeak onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
2	ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK	78.132,80
4	TRANSFERENTZI ARRUNTAK	27.707,09
6	INBERTSIO ERREALAK	1.118.289,94
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		1.224.129,83

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	ACTIVOS FINANCIEROS.	1.224.129,83
GUZTIRA		1.224.129,83

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

Aldeko botoak: 3 (3 EH BILDU)



Aurkako botoak:

Abstentzioa: 3 (2 EAJ, 1 PSE)

Proposamen hau Ogasun Batzordeak onartzen du, eta ondoren Osoko Bilkurari bidaltzen zaio, Osoko Bilkuraren onarpenaren ondorioz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera behin behineko onarpena bidaliko da, eta hamabost egunez jendaurrean ezarriko da.

Zumaian,

Kontu-hartzailea

Batzordeburua

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Irizpenekin hasiko gea. Lehendabizikua izango da Udalaren aurrekontuaren 2. kreditu aldaketa onartzea, bidezko bada. Alexek azalduko dizkigu nundik norakoak.

ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ:

Irizpena irakurri du.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Eskerrik asko Alex. Honetaz aparte aipatu hor aurkezten dugun kreditu aldaketa honetan deigarriak izan daitezkeen partidak. Adibidez, gehitzen da 119.000 eurotan hirigintzako azterlanak, komentuko ekipamendua 105.000 eurotan, hobetze lanak eraikin publikoetan 60, hobetze obrak hilerrian 35.000, hobetze obra branka eraikinean 61.000 ta Algorri museoko obra egiteko 170.000 eta Erkibe lorategia egiteko 330.000. Hoiiek dia aipagarrienak. Zerbait komentatzeko? Bai, zuria da hitza, lker.

IKER MARDARAS ARRIETA:

Kaixo, arratsalde on. Gure taldea abstenituko da kreditu aldaketa honi. Arrazoia da ba bueno, lehendabizi, oro har proposatzen diren mugimendu guztiekin ados gaude, baina Ogasun batzordean aurreratu genuen bezala, Erkibeko lorategiaren ekintzarekin ez gaude ados. Azaldu genuen eremu horrek, beheko plaza guztia, guk ba eremu hortan aktuazio integral baten aldekoak gara eta ez gauzak zatika egitea. Hau ulertarazten duen bezala, besterik ez.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:



Zerbait komentatzeko? Bueno, gure partetik aipatu aldeko bozkatuko dugula, noski. Baina bueno, gai honi buruz egia da proiektu integral bat guk aurkeztu gendula bi milioi eta erdikua, Beheko plaza eraberritze zuna Erkibe eraikina eta lorategiak batea. Baino baita ere diru-laguntza bat jasoko dugula ekimen hori aurrera eramateko. Beraz, uste dugu aukera hau ez dugula pasatzen utzi behar. Horreatikan aurkezten dugu. Bueno eta besterik gabe bozkatu eingo dugu. Aldeko bozka? Abstentzioa?

Aldeko botoak: 11 boto (10 EH BILDU eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 6 EAJ-PNV

ERABAKIA:

Udalaren aurrekontuaren 2. kreditu aldaketa onartzea.



2.-PROPOSAMENAK

2.1.- SAN JUAN EGOITZAKO OBRA LIZENTZIARI EIOZ ZERGAN HOBARIA APLIKATZEA

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Orain, aipatu zaizuen bezala, aurreratu zaizuen bezala, bi proposamen ekarri ditugu, baina lehendabizi bozkatu behar dugu ea proposamen bezala lantzen ditugun.

Benga ba, lehendabiziko proposamena izango da San Juan egoitzako obra lizentziari ICIOko zergan hobaria aplikatzea. Proposamen hau hemen lantzearen aldeko bozkak?

Aldeko botoak: 17 boto (10 EH BILDU; 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, ze proposamen ekartzen dugun Alex idazkariak azalduko digu.

OSOKO BILKURARAKO PREMIAZKO AKORDIO PROPOSAMENA SAN JUAN EGOITZAKO OBRA LIZENTZIARI EIOZ ZERGAN HOBARIA APLIKATZEKO

Ikusi da 2025HBLH0002 eta 2025HBLH0006 espedienteetan SAN JUAN EGOITZARI dagokionez, eraikina handitzeko eta urbanizazio lan osagarriak egiteko, Ane Lore Mendinuetak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politiketako Departamenduaren izenean, eskatu obra lizentziak eta horiei loturiko eskaria, % 95eko hobaria eskatuz Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen Udal Ordenantzaren arabera.

Araudia aplikagarria, Uztailaren 5eko Eraikuntza Instalazio eta Obren gaineko Zergaren 15/1989 Foru Araua eta Zumaiako Ordenantza Fiskalan jasotakoa da.

Bietan honakoa aipatzen da:

% 95eko hobaria, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udal Ba tzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoarekin.

Egingo diren obrak, nagusien egoitza batean egingo direnez, interes soziala erabat betetzen dutela nabarmendu behar da, ekipamendu soziala hobetzea eta irisgarriagoa egitea baitute helburu.



Aurreko guztia kontuan hartuta eta Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 175. artikulua ezarritakoarekin bat etorrita, behean sinatzen duenak honako ERABAKI-proposamen hau igortzen du:

ERABAKIA

Lehena.- 2025HBLH0002 eta 2025HBLH0006 espedienteetan SAN JUAN EGOITZARI dagokionez, eraikina handitzeko eta urbanizazio lan osagarriak egiteko, Ane Lore Mendinuetak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politiketako Departamenduaren izenean, eskatu obra lizentziei dagozkien eta horiei loturiko, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga % 95eko hobaria jasotzeko eskaria onartzea, obra horiek interes berezikoak izendatuz, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen Udal Ordenantzaren arabera, Uztailaren 5eko Eraikuntza Instalazio eta Obren gaineko Zergaren 15/1989 Foru Araua eta Zumaiako Ordenantza Fiskalean jasotakoaren arabera.

Bigarrena.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea

Hirugarrena.- Ogasun sailari berri ematea.

ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ:

Proposamena irakurri du.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Ezer ez badago komentatzeko bozkatzera pasako gea.

Aldeko botoak: 17 boto (10 EH BILDU; 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak 0

ERABAKIA:

SAN JUAN EGOITZAKO OBRA LIZENTZIARI EIOZ ZERGAN HOBARIA APLIKATZEA.



2.2. HAPO ALEGAZIOAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA ONARTZEA

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Bigarren proposamena HAPOn alegazioa aurkezteko epearen luzapena da. Lehendabizi bozkatuko dugu ea proposamena lantzen dugun edo ez.

Aldeko botoak: 17 boto (10 EH BILDU; 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Oso ondo. Alex, komentatuko diguzu luzapena?

OSOKO BILKURARAKO PREMIAZKO AKORDIO PROPOSAMENA HAPO ALEGAZIOAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

2024ko abenduaren 19an egindako ohiko bilkuran, Udalbatzak hasierako onespina eman zion Zumaia Hiri Antolamenduko Plan Orokorriari. Erabakia 2025ko urtarrilaren 21ko GAOn (12. zenbakia) argitaratu zen.

En sesión ordinaria celebrada el 19 de diciembre de 2024, el Pleno del Ayuntamiento aprobó inicialmente el Plan General de Ordenación Urbana de Zumaia. El acuerdo fue publicado en el BOG nº 12, de 21 de enero de 2025.

Plan Orokorriaren hasierako onespinen dokumentua eta ingurumen-azterketa estrategikoaren dokumentua jendaurrean jarri zirenetik, hainbat ekimen abiarazi dira hura ezagutarazi eta zabaltze aldera, esaterako: erakusketa, informazio hitzaldia, parte hartzeko saioa edo talde erredaktorearekin bilerak egiteko aukera.

Desde la exposición pública del documento de aprobación inicial del Plan General y del documento de Estudio Ambiental Estratégico se han puesto en marcha diversas iniciativas para su difusión y divulgación, tales como exposición, charla informativa, sesión participativa o posibilidad de reuniones con el equipo redactor.

Halaber, denbora horretan hainbat eskabide jaso dira alegazioak aurkezteko epea luzatzea eskatzeko. Horretarako argudiatu egin dute, adibidez, HAPOn hasierako onspina ematen dion dokumentua zaila dela, edo kontu batzuk sakonago aztertzea komeni dela.

Asimismo, durante este tiempo se han recibido varias solicitudes para solicitar la ampliación del plazo de presentación de alegaciones. Para ello argumentan, por ejemplo, la dificultad del documento que aprueba inicialmente el PGOU o la conveniencia de profundizar en algunas cuestiones.

Kontuan hartuta gertatutako inguruabarrak zein hirigintzak dituen herritarren

Teniendo en cuenta las circunstancias concurrentes y los principios generales de



partaidetzarako eta informazio publikorako printzipio orokorrak, arrazoizkoa eta egokia da 2025ko martxoaren 27tik apirilaren 30era luzatzea alegazioak aurkezteko epea, baina horrek ez dakar prozedura nabarmen luzatzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea berehala egokitzeko udal-betebeharrari dagokionez.

participación ciudadana e información pública que rigen el urbanismo, resulta razonable y adecuado ampliar el plazo de presentación de alegaciones desde el 27 de marzo hasta el 30 de abril de 2025, sin que ello suponga una ampliación sustancial del procedimiento en relación con la obligación municipal de adaptación inmediata a la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

Aurrekari horiek kontuan hartuta, lege hauek aipatu behar dira:

Sobre la base de estos antecedentes cabe citar las siguientes leyes:

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32. artikulua arabera, administrazioak ofizioz edo interesdunek eskaturik, luza ditzake ezarritako epeak, kontrako manurik izan ezean. Epearen erdia izan daiteke luzapena, gehienez ere. Edonola ere, luzapen hori dagokion epea amaitu baino lehen egin behar da, eta ezin izango da, inola ere, amaitutako epe bat luzatu. Halaber, artikulua horretan xedatzen denez, ezin izango da errekurtsorik jarri epeak luzatzeari edo horiek ukatzeari buruzko erabakien aurka. Horrek ez du eragotziko prozedura amaitzen duen ebazpenaren aurkako bidezko errekurtsua.

De acuerdo con el artículo 32 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la Administración, salvo precepto en contrario, podrá conceder de oficio o a solicitud de los interesados, una ampliación de los plazos establecidos. La ampliación no podrá exceder de la mitad del plazo. En todo caso, dicha prórroga deberá efectuarse antes de la finalización del plazo correspondiente, sin que en ningún caso pueda prorrogarse un plazo ya vencido. Asimismo, dispone que contra los acuerdos sobre ampliación de plazos o sobre su denegación no cabrá recurso alguno. Todo ello sin perjuicio del recurso que proceda contra la resolución que ponga fin al procedimiento.

Jendaurreko informazioaren aldia luzatzeko eskumenari dagokionez, kontuan hartu behar da plangintza orokorrari hasierako onespena emateko eskumena udalbatzaren osoko bilkurari dagokiola, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 123.1.i artikulua arabera. Horren ildotik, udalbatzak 2024ko abenduaren 19ko ohiko bilkuran eman zion hasierako onespena HAPOri, eta bertan zehaztu zen jendaurreko erakustaldirako aldia. Horrenbestez, udalbatzari dagokio epearen luzapena onestea.

En cuanto a la competencia para la ampliación del período de información pública, hay que tener en cuenta que la competencia para la aprobación inicial del planeamiento general corresponde al Pleno de la Corporación, según la Ley 7/1985, Reguladora de las Bases del Régimen Local, según artículo 123.1.i). En este sentido, el Pleno municipal, en sesión ordinaria celebrada el día 19 de diciembre de 2024, aprobó inicialmente el PGOU, concretando el periodo de información pública. En consecuencia, corresponde al Pleno aprobar la ampliación del plazo.

Aurreko guztia kontuan hartuta eta Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986

A la vista de cuanto antecede y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 175 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el



Errege Dekretuaren 175. artikulua ezarritakoarekin bat etorrita, behean sinatzen duenak honako ERABAKI-proposamen hau igortzen du:

Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, el abajo firmante formula la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

ERABAKIA

ACUERDO

Lehena.- 2025eko apirilaren 30a arte (egun hori barne) luzatzea Zumaiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren hasierako onespenera dagokion alegazioak aurkezteko epea.

Primero.- Ampliar el plazo de presentación de alegaciones a la aprobación inicial del Plan General de Ordenación Urbana de Zumaia hasta el 30 de abril de 2025 inclusive.

Bigarrena.- Alegazioak aurkezteko epearen luzapena Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean eta Gipuzkoan gehien saltzen diren bi egunkaritan argitaratzea.

Segundo.- Publicar la ampliación del plazo de alegaciones en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa y en dos periódicos de mayor circulación en Gipuzkoa.

ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ:

Proposamena irakurri du.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Oso ondo. Ez baldin badao ezer komentatzeko bozkatu egingo dugu.

Aldeko botoak: 17 boto (10 EH BILDU; 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak 0

ERABAKIA:

HAPO ALEGAZIOAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA ONARTZEA

**3.- UDALBATZAKO ORGANOEEN KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA.****3.1.- UDALAREN 2024KO 31. ETA 2025EKO 3., 4., ETA 5. ERREPARO ORRIEN ETA HAUEN ALKATE DEKRETUEN BERRI EMATEA.****KONTU-HARTZAILEAREN ERREPARO ORRIA (31/2024):****AURREKARIAK:**

Kontu-hartzaileak, Zumaia Udaleko kontratuen egoeraz interesaturik honako kontratu hauek epez kanpo aurkitu ditu fakturei oniritzia ematerakoan:

KONTRATUEN ERANSKINA

Enpresa	Kontratututako zerbitzua	Data Kontratua	Iraupena	data amaitu
Eulen	Eguneko zentroa	01/02/2009	1 + 1	01/02/2011
Eulen	Etxez etxeko laguntza	01/04/2022	2	2024/04/01
UTE LV ZUMAIA	Kale garbiketa	11/01/2016	1+1	11/01/2018
Arazi IKT SL	Algorri kudeaketa	20/04/2016	1+1	20/04/2018
Kastore Gest S.L.	Hainbat zerbitzu	05/11/2009	2+1	05/11/2012
Serkonten	Edukiontzi higienikoak	01/11/2016	1	01/11/2017
Erreka	Ate automatikoen mantenua	01/10/2016		01/10/2017
Kalexka elkartea	Kale heziketa/esku hartze programa	01/07/2017	2+2	01/07/2021
BPXPORT S.L.	Kirodegiko zerbitzua	12/09/2012	2+2	12/09/2016
GEZE IBERIA S.R.L.U.	Ate automatikoa mantenua	23/07/2019	1	23/07/2020
TECNOGYM TRADING S.A	Gimnasioko makinariaren mantenua			

Aplikagarria zaizkion arauak:

- 1) 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena + Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- 2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa.
- 3) 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 4) 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duena.



5) **RESOLUCIÓN de 2 de junio de 2008, de la Intervención General de la Administración del Estado, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 30 de mayo de 2008, por el que se da aplicación a la previsión de los artículos 152 y 147 de la Ley General Presupuestaria, respecto al ejercicio de la función interventora en régimen de requisitos básicos.**

6) **Resolución de 25 de julio de 2018, de la Intervención General de la Administración del Estado, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 20 de julio de 2018, por el que se da aplicación a la previsión de los artículos 152 y 147 de la Ley General Presupuestaria, respecto al ejercicio de la función interventora en régimen de requisitos básicos en el ámbito de los contratos del sector público y encargos a medios propios.**

Zehaztasunak:

21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

“ 67. artikulua. Legezketasunaren kontrola.”

1.- Kontu-hartze-eginkizunaren helburua, haren legezketasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haiek eskubide eta betebeharrak ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasun publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:

a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontu-hartze kritikoa edo aurrefiazkoa.

b) **Ordainketa-aginduaren erazko kontu-hartzea.**

c) **Ordainketaren kontu-hartze materiala.** Udaltzatzen erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontu-hartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoan erabilpenerako mankomunitatei erantsiko zaie.

“70. artikulua. Erreparoa.”

1.- Kontu-hartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontu-hartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere erreparoa idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

3.- Erreparoa gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetzea etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:



c) Espedientean **funsezko beharkizun** edo izapideak alde batetara utzi direnean.

4.- Erreparoa ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazi beharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua:

“218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak.”

1. Kontu-hartzailetzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organo eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitua duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzailetzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena

12. artikulua. Eragozpenak.

1. Organo kontu-hartzaileak adierazten badu ez dagoela ados aztertutako egintza, agiri edo espedienteen mamiarekin edo formarekin, bere eragozpenak idatziz azaldu beharko ditu. Eragozpen horiek irizpidea finkatzen duten arauetan oinarritutako arazoibideen bitartez motibatu behar dira, eta espedientean jasotako oztopo guztiak barnean hartuko dituzte.

2. Baldin eta eragozpenak gastuen onespeneri edo xedapeneri, obligazioen onarpenari edo ordainketen aginduari eragiten badio, espedientearen izapidea etengo da harik



eta hura ebatzi arte, betiere 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotako kasuetan gertatzen denean.

3. Aipatutako 70.3 artikulua c) apartatua jasotako kasuan, bidezkoa izango da eragozpen etenarazle bat azaltzea, honelakoak gertatuz gero:

a) Gastua onartzeko eskumenik ez duen organo bati proposatzen zaionean.

b) Obligazioaren onarpenaren frogagiritan irregulartasun larriak sumatzen direnean edo jasotzailearen eskubidea behar adina egiaztatzen ez denean.

c) Baldintzak edo izapideak ez betetzearen ondorioz egintza deuseztatuta gelditu daitekeenean edo, kudeaketa administratiboarekin aurrera jarraituz gero, toki entitateko diruzaintzari edo hirugarrenei diru galera ekarri ahal zaienean.

Korporazioko osoko bilkurak beste baldintza edo izapide osagarri batzuk onartu ahal izango ditu, organo kontu-hartzaileak txostena egin ondoren, eta haiek ere funtsezkotzat hartuko dira.

4. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen duenean, bertan jasotako akatsak zuzendu beharko ditu eta jarduketak berriro bidali beharko dizkio organo kontu-hartzaileari hamabost eguneko epean. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen ez duenean, aldiz, foru dekretu honetako 15. artikuluan xedatutako prozedura hasiko du.

5. Baldin eta espedientearen akatsak gertatzen badira funtsezkotzat ez diren baldintzak edo izapideak eta 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotako gainerakoak ez betetzearen ondorioz, Kontu-hartzaileak aldeko txostena egin ahal izango du, baina, egintza eraginkorra izango bada, akats horiek espedientearen onartu aurretik zuzendu beharko dira. Organo kudeatzaileak akats horiek zuzendu izanaren frogagiriak bidaliko dizkio organo kontu-hartzaileari. Baldin eta organo kudeatzaileak espedienteak aurrera jarraitzeko ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, eragozpena azaldutzat hartuko da, eta horrek ez du eragotziko, egoki deritzen kasuetan, foru dekretu honetako 15. artikuluan jasotako prozedura hastea. Organo kontu-hartzaileak Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidaliko ditu apartatu honetan jasotakoaren arabera azaldutako eragozpenen aurka hartzen diren ebazpen eta erabakiak.

b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:

FAKTURAREN DATA	FAKTURAZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARNE
2024/10/30	2472000426	TECHNOGYM TRADING S.A.	Konponketa	1.100,69
2024/1/31	2475005722	TECHNOGYM TRADING S.A.	Urtarrila mantentze kuota	695,75
2024/2/29	2475005723	TECHNOGYM TRADING S.A.	Otsaila mantentze kuota	695,75
2024/3/31	2475005724	TECHNOGYM TRADING S.A.	Martxoa mantentze kuota	695,75
2024/4/30	2475005725	TECHNOGYM TRADING S.A.	Apirila mantentze kuota	695,75
2024/5/31	2475005726	TECHNOGYM TRADING S.A.	Maiatza mantentze kuota	695,75
2024/6/30	2475005727	TECHNOGYM TRADING S.A.	Ekaina mantentze kuota	695,75
2024/7/31	2475005728	TECHNOGYM TRADING S.A.	Uztaila mantentze kuota	647,69
2024/8/31	2475005729	TECHNOGYM TRADING S.A.	Abuztua mantentze kuota	647,69
2024/9/30	2475005730	TECHNOGYM TRADING S.A.	Iraila mantentze kuota	647,69
2024/10/31	2475005731	TECHNOGYM TRADING S.A.	Urria mantentze kuota	647,69
2024/11/30	2475006239	TECHNOGYM TRADING S.A.	Azaroa mantentze kuota	647,69



2024/12/31	2475006412	TECHNOGYM TRADING S.A.	Abendua mantentze kuota	647,69
				9.161,33

ONDORIOAK:

a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira. Bestalde aipatu beharra dago hilero ordaintzen den kopuruaren garrantzia kuantitatiboa kontuan izanda, gizarte zerbitzuetako kontratua, hau da, eguneko zentroaren kudeaketa zerbitzuak eta kiroldegiko zerbitzuaren kontratuak lehentasuna eduki beharko lukete kontratuen eguneratze prozesuan.

b) Momentuz, zerrendatutako faktura guztien ordainketaren izapidetzea etengo da Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan eta **puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

ALKATE EBAZPENA**AURREKARIAK**

2025eko otsailaren 14ean kontu-hartzaileak honako erreparo orria jakinarazi dit (29/2024)

Kontu-hartzaileak egindako txostenaren arabera, ohartarazten du Legezko esleipen prozedura jarraitu ez duten fakturak iristeaz gain, indarrean ez dauden kontratuak dituztenak ere iritsi direla.

Eta, honako faktura hauen ordainketaren izapidetzea eten du:

b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:

FAKTURARE N DATA	FAKTURA ZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARNE
2024/10/30	2472000426	TECHNOGYM TRADING S.A.	Konponketa	1.100,69
2024/1/31	2475005722	TECHNOGYM TRADING S.A.	Urtarrila mantentze kuota	695,75
2024/2/29	2475005723	TECHNOGYM TRADING S.A.	Otsaila mantentze kuota	695,75
2024/3/31	2475005724	TECHNOGYM TRADING S.A.	Martxoa mantentze kuota	695,75
2024/4/30	2475005725	TECHNOGYM TRADING S.A.	Apirila mantentze kuota	695,75
2024/5/31	2475005726	TECHNOGYM TRADING S.A.	Maiatza mantentze kuota	695,75
2024/6/30	2475005727	TECHNOGYM TRADING S.A.	Ekaina mantentze kuota	695,75
2024/7/31	2475005728	TECHNOGYM TRADING S.A.	Uztaila mantentze kuota	647,69
2024/8/31	2475005729	TECHNOGYM TRADING S.A.	Abuztua mantentze kuota	647,69
2024/9/30	2475005730	TECHNOGYM TRADING S.A.	Iraila mantentze kuota	647,69
2024/10/31	2475005731	TECHNOGYM TRADING S.A.	Urria mantentze kuota	647,69
2024/11/30	2475006239	TECHNOGYM TRADING S.A.	Azaroa mantentze kuota	647,69
2024/12/31	2475006412	TECHNOGYM TRADING S.A.	Abendua mantentze kuota	647,69



				9.161,33
--	--	--	--	----------

ERABAKIA:

Beharrezkoak diren zerbitzuak ematen jarraitu ahal izateko dagozkien ordainketak egitea agintzen dut.

Alkatea

KONTU-HARTZAILEAREN ERREPARO ORRIA (3/2025):**AURREKARIAK:**

Kontu-hartzaileak, Zumaiako Udaleko kontratuen egoeraz interesaturik honako kontratu hauek epez kanpo aurkitu ditu fakturei oniritzia ematerakoan:

KONTRATUEN ERANSKINA

Enpresa	Kontratututako zerbitzua	Data Kontratua	Iraupena	data amaitu
Eulen	Eguneko zentroa	01/02/2009	1 + 1	01/02/2011
Eulen	Etxez etxeko laguntza	01/04/2022	2	2024/04/01
UTE LV ZUMAIA	Kale garbiketa	11/01/2016	1+1	11/01/2018
Arazi IKT SL	Algorri kudeaketa	20/04/2016	1+1	20/04/2018
Kastore Gest S.L.	Hainbat zerbitzu	05/11/2009	2+1	05/11/2012
Serkonten	Edukiontzi higienikoak	01/11/2016	1	01/11/2017
Erreka	Ate automatikoen mantenua	01/10/2016		01/10/2017
Kalexka elkarte	Kale heziketa/esku hartze programa	01/07/2017	2+2	01/07/2021
BPXPORT S.L.	Kirodegiko zerbitzua	12/09/2012	2+2	12/09/2016
GEZE IBERIA S.R.L.U.	Ate automatikoa mantenua	23/07/2019	1	23/07/2020
TECNOGYM TRADING S.A	Gimnasioko makinariaren mantenua			

Aplikagarria zaizkion arauak:

- 1) 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena + Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- 2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.
- 3) 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.



4) 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzeko duena eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duena.

5) RESOLUCIÓN de 2 de junio de 2008, de la Intervención General de la Administración del Estado, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 30 de mayo de 2008, por el que se da aplicación a la previsión de los artículos 152 y 147 de la Ley General Presupuestaria, respecto al ejercicio de la función interventora en régimen de requisitos básicos.

6) Resolución de 25 de julio de 2018, de la Intervención General de la Administración del Estado, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 20 de julio de 2018, por el que se da aplicación a la previsión de los artículos 152 y 147 de la Ley General Presupuestaria, respecto al ejercicio de la función interventora en régimen de requisitos básicos en el ámbito de los contratos del sector público y encargos a medios propios.

Zehaztasunak:

21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

" 67. artikulua. Legezketasunaren kontrola."

1.- Kontu-hartze-eginkizunaren helburua, haren legezketasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haien eskubide eta betebeharrak ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasun publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:

a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontu-hartze kritikoa edo aurreziazkoa.

b) **Ordainketa-aginduaren erazko kontu-hartzea.**

c) **Ordainketaren kontu-hartze materiala.** Udaltzatzen erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontu-hartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoen erabilpenerako mankomunitatei erantsiko zaie.

"70. artikulua. Erreparoa."

1.- Kontu-hartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontu-hartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere erreparoa idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino



lehen.

3.- Erreparoa gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetzea etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientearen **funsezko beharkizun** edo izapideak alde batetara utzi direnean.

4.- Erreparoa ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazi beharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua:

"218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak."

1. Kontu-hartzaitzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organo eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitua duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzaitzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena

12. artikulua. Eragozpenak.

4. Organo kontu-hartzaileak adierazten badu ez dagoela ados aztertutako egintza, agiri edo espedienteen mamiarekin edo formarekin, bere



eragozpenak idatziz azaldu beharko ditu. Eragozpen horiek irizpidea finkatzen duten arauetan oinarritutako arrazoibideen bitartez motibatu behar dira, eta espedientearen jasotako oztopo guztiak barnean hartuko dituzte.

- 5. Baldin eta eragozpenak gastuen onespenerari edo xedapenerari, obligazioen onarpenari edo ordainketen aginduari eragiten badiu, espedientearen izapidea etengo da harik eta hura ebatzi arte, betiere 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotako kasuetan gertatzen denean.
- 6. Aipatutako 70.3 artikulua c) apartatua jasotako kasuan, bidezkoa izango da eragozpen etenarazle bat azaltzea, honelakoak gertatuz gero:
 - a) Gastua onartzeko eskumenik ez duen organo bati proposatzen zaionean.
 - b) Obligazioaren onarpenaren frogagiritan irregulartasun larriak sumatzen direnean edo jasotzailearen eskubidea behar adina egiaztatzen ez denean.
 - c) Baldintzak edo izapideak ez betetzearen ondorioz egintza deuseztatuta gelditu daitekeenean edo, kudeaketa administratiboarekin aurrera jarraituz gero, toki entitateko diruzaintzari edo hirugarrenei diru galera ekarri ahal zaienean.

Korporazioko osoko bilkurak beste baldintza edo izapide osagarri batzuk onartu ahal izango ditu, organo kontu-hartzaileak txostena egin ondoren, eta haiek ere funtsezkotzat hartuko dira.

4. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen duenean, bertan jasotako akatsak zuzendu beharko ditu eta jarduketak berriro bidali beharko dizkio organo kontu-hartzaileari hamabost eguneko epean. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen ez duenean, aldiz, foru dekretu honetako 15. artikuluan xedatutako prozedura hasiko du.

5. Baldin eta espedientearen akatsak gertatzen badira funtsezkotzat ez diren baldintzak edo izapideak eta 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotako gainerakoak ez betetzearen ondorioz, Kontu-hartzaileak aldeko txostena egin ahal izango du, baina, egintza eraginkorra izango bada, akats horiek espedientearen onartu aurretik zuzendu beharko dira. Organo kudeatzaileak akats horiek zuzendu izanaren frogagiriak bidaliko dizkio organo kontu-hartzaileari. Baldin eta organo kudeatzaileak espedientearen aurrera jarraitzeko ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, eragozpena azaldutzat hartuko da, eta horrek ez du eragotziko, egoki deritzen kasuetan, foru dekretu honetako 15. artikuluan jasotako prozedura hastea. Organo kontu-hartzaileak Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidaliko ditu apartatu honetan jasotakoaren arabera azaldutako eragozpenen aurka hartzen diren ebazpen eta erabakiak.

b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:

FAKTURAREN DATA	FAKTURAZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARNE
2025/2/7	035-2025	KALEXKA ELKARTEA	ABENDUA - Gizarte eta hezkuntza arloa eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua	8.116,75



2025/1/31	FOSO2723	EULEN SERVICIOS SOCIOSANITARIOS	URTARRILA 2025 - EGUNEKO ZENTROAREN KUDEAKETA ZERBITZUAGATIKETA ZERBITZUAGATIK	26.287,85
2025/1/31	2025/F25/121	BPXPORT XXI SLU	ADMINISTRATIO zerbitzua. Urtarrila 2025	4.030,90
2025/1/31	2025/F25/122	BPXPORT XXI SLU	HARRERA zerbitzua. Urtarrila 2025	7.837,53
				46.273,03

ONDORIOAK:

a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira. Bestalde aipatu beharra dago hilero ordaintzen den kopuruaren garrantzia kuantitatiboa kontuan izanda, gizarte zerbitzuetako kontratua, hau da, eguneko zentroaren kudeaketa zerbitzuak eta kale garbiketako zerbitzuak lehentasuna eduki beharko lukete kontratuen eguneratze prozesuan.

b) Momentuz, zerrendatutako faktura guztien ordaintzaren izapidetzea etengo da Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan eta **puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

ALKATE EBAZPENA**AURREKARIAK**

2025eko otsailaren 28an kontu-hartzaileak honako erreparorria jakinarazi dit (3/2025)

Kontu-hartzaileak egindako txostenaren arabera, ohartarazten du Legezko esleipen prozedura jarraitu ez duten fakturak iristeaz gain, indarrean ez dauden kontratuak dituztenak ere iritsi direla.

b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:

FAKTURAREN DATA	FAKTURAZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARNE
2025/2/7	035-2025	KALEXKA ELKARTEA	ABENDUA - Gizarte eta hezkuntza arloa eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua	8.116,75
2025/1/31	FOSO2723	EULEN SERVICIOS SOCIOSANITARIOS	URTARRILA 2025 - EGUNEKO ZENTROAREN KUDEAKETA ZERBITZUAGATIKETA ZERBITZUAGATIK	26.287,85
2025/1/31	2025/F25/121	BPXPORT XXI SLU	ADMINISTRATIO zerbitzua. Urtarrila 2025	4.030,90
2025/1/31	2025/F25/122	BPXPORT XXI SLU	HARRERA zerbitzua. Urtarrila 2025	7.837,53



				46.273,03
--	--	--	--	-----------

ERABAKIA:

Beharrezkoak diren zerbitzuak ematen jarraitu ahal izateko dagozkien ordainketak egitea agintzen dut.

Alkatea

KONTU-HARTZAILEAREN ERREPARO ORRIA (4/2025):**AURREKARIAK:**

Kontu-hartzaileak, Zumaiako Udaleko kontratuen egoeraz interesaturik honako kontratu hauek epez kanpo aurkitu ditu fakturei oniritzia ematerakoan:

KONTRATUEN ERANSKINA

Enpresa	Kontratututako zerbitzua	Data Kontratua	Iraupena	data amaitu
Eulen	Eguneko zentroa	01/02/2009	1 + 1	01/02/2011
Eulen	Etxez etxeko laguntza	01/04/2022	2	2024/04/01
UTE LV ZUMAIA	Kale garbiketa	11/01/2016	1+1	11/01/2018
